

# Joanes Etxeberri Sarakoa, sendagilea eta letra-gizona

Gidor BILBAO TELLETXEA  
EHU-UPV

## **Zein mendetakoak gara ?**

Joanes Etxeberri Sarakoa 1668 inguruan jaio zen Saran, eta 1696an Okzitaniako Tolosako Unibertsitateko ikaslea zen, lizentziatu-doktore ikasketetan baitziharduen. Mende-hondarrean egin zituen, beraz, bere ikasketak<sup>1</sup>. Bestalde, guk ezagutzen dugun Etxeberriren lan nagusiari 1712ko data ezarri zion berak azalean, baina badakigu ordurako lau hizkuntzatarako hiztegia moldatzen hasia zela. Azkenik, 1718koa da bera bizi zela argitaraturiko lan bakarra. Baina badakigu 1727an oraindik bere lanarentzat argitarabidearen bila zebilela Lapurdiko Biltzarraren aurrean. Eta 1749an hil zen. Hamazazpigarren mendeko gizona zen, ala hamazortzigarrenekoa ? Galdera ez da gutariko inorentzat arrotza ; izan ere, gu noizkoak gara ? Noizkoa gure jakintza ? Hogeigarren mendekoa ? Hogeita batgarrenekoa ?

Ondoko lerroetan erakutsi nahi dugu zubiko gizona izan zela Joanes Etxeberri Sarakoa. XVIII. mendean sortua eta ondua da, zalantzarik gabe, bere lana, baina XVII. mendeko ikasketetan eta lanetan oinarritua. Joanes Etxeberri sendagilea erdi eta erdi bizi izan zen XVII. eta XVIII. mendeetan, baina Sarako Etxeberri letra-gizonak soilik XVII. mendeko baliabideak erabili zituen.

Zubiko gizona izan zen, orobat, Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren artean. Erresumen arteko mugaren bi aldeetan bizi izan zen, eta badirudi mendeen artekoa bezain irazkorra izan zela beretzat Espainiaren eta Frantziaren arteko muga.

## **Joanes Etxeberri sendagilea**

Julio Urkixoren lan itzelari esker ezagutzen ditugu Etxeberriren bizitzako gorabeherarik gehienak (Urquijo 1907 : XI-XXXIX). Hark irakatsi dizkigu Etxeberriren bizitzako data eta leku garrantzizkoenak.

1668aren inguruan jaio zen. Onartu izan da Saran jaio zela, hori frogatzeko dokumenturik ez den arren, besteak beste berak ere badiotelako Axular erretore izan zen elizan bataiatua dela<sup>2</sup> :

Harc bere demboran manajatu eta bere gomendioan iduqui çuen bathajo-harrian errecibitua baitut ene bathajoco ur saindua (Urquijo 1907 : 63).

1 - BFF2002-03132 ikerketa-proiektuari esker egin ahal izan da lan hau. Esker ona agertu behar diot Joseba Lakarra irakasleari, bere egungo ikergai nagusia zenbait mende lehenagokoa izan arren arretaz entzun eta aztertu dituelako orain ere XVII. eta XVIII. mendeetako kontuak.

2 - Urquijoren 1907ko edizioako orrialdeak aipatuaz emango ditugu erreferentziak, eta ez eskuizkibuaren arabera, aipua konpultsatu edo bere testuinguruan ikusi nahi duenaren lana erraztearren.

Ez dakigu lehenengo ikasketak non egin zituen. Berak aitortzen du jesuitekin ikasi zuela (Urquijo 1907 : 39-40), baina ez dakigu non izan zen. Litekeena da, Urkixok uste zuen bezala, Pauen ikasia izatea, hango ikastetxea baitzen orduan Saratik hurbilekoena, eta aski garrantzi handikoa. 1991an arreta berezia eskaini genion datu horri (Bilbao 1991 : 755, 765), eta geroztik ere egunean baino egunean garrantzitsuagoa iruditu zaigu bere lana ulertzeko, are Etxeberriren irakurketak ere baldintzatu zituela uste baitugu. Baina ez dugu aurkitu zein ikastetxetan izan zen frogatzen duen dokumenturik (ikus Bilbao 1997 : 26-27).

Zorte hobea izan genuen gure bilaketa-lanean medikuntza-ikasketetako datuekin. Bilbao 1997-n argitaratu genituen bi dokumentu, zalantzarik gabe erakusten dutenak Joanes Etxeberri Sarakoak Okzitaniako Tolosako Unibertsitatean egin zituela medikuntzako ikasketak. Unibertsitate hartako batxilerren errodaren arabera, 1694ko azaroaren lehenen izendatu zuten medikuntzan batxiler, eta unibertsitate berean eginak zituen *liberalium artium magister* izateko ikasketak. Gainera, Isturitzeko adiskide ikaskide baten lekuko gisa sinatzen duen 1696ko agiri baten arabera, urte hartako abuztuaren 29an oraindik Tolosan zegoen ikasten, medikuntza-ikasketetako hirugarren gradua, lizentzia eta doktoratua, eskuratu nahian (biak aldireraren erdian bait ziren garaitu hartan).

Orduan ez genion arreta eman, baina orain uste dugu ez dela kontu hutsala 1696ko dokumentu horren azpian *Juan d'Etcheberry* agertzea sinadura gisa, *Juan* (eta ez *Joannes* edo *Jean*) izenarekin. Ba al du zerikusirik mugen irazkortasunarekin? Saran bataiatu zutela sinetsiko diogu Etxeberriri berari, baina etxearen izena *Lekuberri* izateak (Urquijo 1913), eta etxe-izen hori Sarako etxe zaharren artean ez izateak pentsaraz lezake agian familia ez zela jatorriz Sarakoa (eta are *Juan* izena etxe izena zela, familiaren sorterritik ekarria).

Hortik aurrerako ibilbidea ere ez zen laburra izan. Hurbiletik jarraitu zion Urkixok Etxeberriren arrastoari : 1713an Saran bizi zen, baina Berako sendagilea zen. 1716an ere oraindik Berako sendagilea zen, eta gainera han bertan bizi zen. 1722an Hondarribira aldatu zen, hango sendagile izateko. Lau urte baino ez zuen iraun hor ere, eta 1726tik aurrera Azkoitian izan zen lanean. Hor hil zen 1749an.

Interesgarria da data eta toki horiek bere lanei buruz aipatu ditugunekin gurutzatzea. 1712an, gramatika-lanari ezarri zion datan eta hiztegia moldatzen hasia zela dakigunean, ezin dugu ziurtatu non eta zertan ari zen. Baina hurrengo urtean Saran bizi zen, eta Beran zuen lana. 1718an, *Lau-urdira gomendiozco carta edo guthuna* Baionako Roquemaurel inprentan argitaratu zuenean, Beran bizi zen. 1727an, bere lana argitaratu ahal izateko Lapurdiko Biltzarrari dirua aurreratzeko eskatu zionean, Azkoitiako sendagilea zen eta han bizi zen.

Mugaz gairik ibilbide honetan, esanguratsua dira hark ematen dituen Euskal Herriko "presunaja ohoratu eta ospe handitacoen" zerrendak. Bi lekutan ematen ditu, eta bietan geratu dira zerrendak zabalik, aurrerago osatzeko asmoarekin. Eta bietan geratu dira orriaren zuriuneak, orrialde osoak, bete gabe. Gainera, argi ikusten da bigarren idatzaldi batean idatziak direla hor agertzen diren izenak. Lehenengoan, euskara noblea dela erakusteko, euskaldunak orohar eta banan-banan ohoratuak direla frogatu behar du (Urquijo 1907 : 33) :

... ahalaz entsejatuco naiz bat bedera bere adineco edo mendeco herroncaren eredura icendatcera :

D. Antonio Oquendo Almirante Generala,  
 eta bere seme D. Miguel Oquendo Generala,  
 eta halaber hunen seme D. Miguel Carlos Oquendo Sanmiliango Marquesa,  
 eta hauquien bertce aitcineco hainitz.

...

Hemendic consideratuco duçu nolacoac içan ciren lehenagoco escualdun ohoratu hec. Ordea hequien ondocoec ere eztute hequinganiccaco ethorquiaz ukhatu, ez hequien ohorea eta loria bathere guibelatu. Ceren egungo egunean ere causitcen baitira hambat presunaja handi, batçuec escualdun fin eta natural garbiac, eta bertceac escualdunen leinu ohorezcotic eta arraça garbitic ethorquia dutenac, hala batçuec nola bertceac bere merecimenduen bidez baitaude ohorez, errespetuz eta ontasunez gaindi eguinac, hala nola baitira :

Lardizabal ippizpicua  
 D. Juan de Idiquez  
 D. Thomas de Ydiaquez  
 D. .... Armendariz  
 D. Francisco de Emparan  
 Los Gerenas  
 Escalona  
 D. Gabriel de Zuloaga

...

“Cientcietacotçat gai onac” direla euskaldunak erakutsi nahi du bigarren zerrendan (Urquijo 1907 : 37) :

Arroçoinamendu hunen eredura, ecin erran diteque, beraz, escualduna burugogor eta har-aira gaitcetacoa dela, baina bai gai ona eta escoletacotçat behar beçalacoa. Eguia hau exempluz hala eracutsi içatu dute Escual Herritic herri arrotcetarat ilkhi diren bakotchetic hainitcec, hala nola :

D. Navarro Baztan Aspilcoeta semeac,  
 Aita Eliçalde, Jesusen Compainiaco Jesuistac, eta halaber Etchelarco semeac,  
 Aita Geronimo Echenique, Urdaçubico conventuacoac, eta Erratçuco semea.

...

Deigarria iruditzen zaigu aukeraturiko izen guzti-guztiak Hego Euskal Herrikoak izatea, gipuzkoarrak eta nafarrak. Data eta tokien gurutzaketara itzuliez gero, pentsa genezake Hego Euskal Herrian bizi zen garaiari idatziak direla zerrendak (gogoratu, gainera, bigarren idatzaldikoak direla), baina ezin dugu ahaztu 1727an Lapurdiko Biltzarrari eskatu ziola diru-laguntza. Agian hegoaldeko erakunderen bati ere aurkeztu zion proiektua, edo aurkezteko asmoa zuen ?

Erantzunik ez dugun arren, jokabide horren argitan (liburuan dagoen testuinguruan egonda, Etxeberri berak beste ideia baten zerbitzuan erabili arren), beste zentzu bat ere hartzen du orain hona ekarriko dugun zatiak (Urquijo 1907 : 34-35), eta badirudi Sarako sendagileak ere bat egiten duela Felipe V.a Espainiako errege koroatu zutenean (1700ean) erabili ohi zen “il n'y a plus de Pyrénées” harekin :

Eta hala, guisa hunetan, frogantça clara da Tubal escualduna munduco bi khoroaric handienetara igan dela, ecen gauça jaquina da, ceren munduan asco habarrots eguin baitu, Luis gure erregue handiac erreguina handi harenganic ethorquia baduela, eta handican deitzen dela *Ludovicus XIII, Dei gratia Francorum et Navarrae rex*, "Franciaco eta Naffarroaco erregue". Ceren Henrri laurgarrena andre haren illobasoa baitcen, eta Henrrirena Luis, gure erregue handia. Manera berean, Philippe Quinto, Luis handiaren illobasoa eta Espainiaco erregue dena, da leinu eta ethorqui bereticcacoa. Halaco guisaz non baiterraquet Noec Japhet bere semeari eman cioen benedicino profeciaco hura hemen complitu dela. [...] Profecia hau complitu da ossoqui, noiz eta ere Tubal escualduna bi erregue handi eta Eliçaco seme fidel eta leyal hauquien majestateari juntatu baitcaje. Hargatic, beraz, egun arroçoin du Iruñeac handirozqui loriatceco, ceren den munduco bi monarkha handiaren ama, bai halaber Espainiaco eta Franciaco erresumen artean erreguina beçala.

### Sarako Etxeberri letra-gizona

XVII. eta XVIII. mendeetan beste hizkuntza batzuek ere ekindako bidetik, hiru osagaiz biribildutako proiektua da Etxeberri Sarakoarena : saiakera-lanak, gramatika-lana eta lexikografia-lana. Euskal Herrian ere ez zen bakarra izan proiektua hirukoitza abiarazten (Larramendi da arrakasta handiena erdietsi zuena).

Saiakera-lanetan bi izenburu aipatu behar dira. Lehena, bi zutabetan idatzia, euskaraz eta latinez, ez zuen Sarakoak argitaratuta ikusi, ez baitzuen argia ikusi 1907n Urkixok euskarazko zutabea argitara eman arte ; *Laburdiri escuararen hatsapenac* izena erabiliko dugu, Urkixok emandakoa onartuz. Latinezko zutabea luzaro izan da lo Zarauzko Eskuizkribuan (horrela deitu ohi zaió Etxeberriren lanen eskuizkribu bakarrari)<sup>3</sup>, eta orain ari gara haren edizioa paratzen, euskarazkoaren edizio osatuarekin batera. Ez dugu hemen edukiaren azterketarik eskainiko, baina, aski argigarriak direnez, atalen izenburuak bilduko ditugu, lehenengoak Zarauzko Eskuizkribuko 449-450. orrialdeetan dagoen *Liburu hunetan gaudecin gaudecin araldea edo herronca* delakotik hartuta (atalak eta azpiatalak bereizi gabe), eta gero, aurkibide hori etenda geratzen den ataletarako, testutik bertatik hartuta (zehaztasun gutxiagorekin) :

Escuararen ethorquia.  
Ea badentz escuara.  
Cer dentz escuara.  
Icenaren definicinoa.  
Cer dentz icena.  
Ethymoloia cer dentz.

3 - Ez dakigu eskuizkribu hori noiz eta nola iritsi zen Zarauzko frantzizkotarren komentura. Aztarna bakarra 452. orrialdean dago : "El día 19 de Octubre de 1803 se le regaló al señor Astarloa la presente obra por el señor don .....". Argitu gabe geratzen da oparia egin zuena zein izan zen. Zirriborro bat dago ondoren, orrialde zurian, baina ez dirudi errubrika denik. Hurrengo orrialdeko zifrak ere ziurrenik urte horretako data bati dagozkio, maiatzaren 14ari hain zuzen ("14-05-03"), eta zerikusia dute eskuizkribuaren bizitzarekin, baina guk ez dakigu esanahia argitzen. Errazena da deitura hori lotzea Pedro Astarloa frantzizkotarrarekin (Pedro José Patricio de Astarloa e Iturri, 1751-1821), *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*-en egilearekin, bai baitakigu haren beste eskuizkribu batzuk ere Zarauzko komentuan izan direla. Bestalde, ezin da aipatu gabe utzi hain zuzen 1803an argitaratu zuela haren anaia Pablo Pedro Astarloak, Madrilen, bere *Apología de la lengua bascongada* ospetsua, eta agian norbaitek (eskuizkribuaren aurreko jabeak) pentsatu zuela interesgarria izan zitekeela Etxeberriren obratzaaren edukia apologiaren idazlearentzat edo anaiarentzat.

Escuararen ethimologia *escu*-tic, eta escua cein gauça miragarria den.  
 Escualdunaren eta Escual-Herriaren icenac bertce hitzcuntcetan ere misteriotsuac.  
 Cantabria icen hau nondic heldu den.  
 Gauçaren definicinoa.  
 Escuara hitzcuntça çaharra, çuhurra, antçatsua edo artificiosua, garbia, noblea eta bertce hitzcuntcetaric ethorquiric gabecoa da.  
 Escuara çaharra da.  
 Uholdeco demborainocoan etcen hitzcuntça bat baicic.  
 Hitzcuntça hebreoac Heber-ganic du bere ethorquia eta deicinoa.  
 Iaphet, Noeren seme benedicinozcoa.  
 Tubal cen Iapheten bortzgarren semea eta Noeren illobassoa.  
 Cein partetaric Tubal sarthu cen Espainiarat eta non eguin çuen bere lehenbico egoitça.  
 Tubalen hitzcuntça, ala escuara centz, ala bertce hitzcuntçaric.  
 Escuara çuhurra da<sup>4</sup>.  
 Escuararen çuhurtciaren frogac.  
 Escuarazco icenen declinacioaz.  
 Eta baldin icen choiletan bada misteriotsu, ezta oraino gutiago verboetan ere.  
 Badu bertce manera izpiritutsu bat, bertce hitzcuntcec eztutena, ceina baita verboari generoaren eratchequitcea.  
 Escuara garbia da.  
 Hitzcuntçac demborarequin çahartcen dira.  
 Ehun eta berrogoy eta hamar urtheren ingurunean escuarac eztu gambiaduracic hartu.  
 Godoen icenac etciren declinatcen, ez eta ere gaztelaniazcoac, italianoazcoac eta francesescoac.  
 Godoec verbo latinezcoen conjugacinoac seguitu cituzten cembait partetan, baina ez guztietan, eta bereciqui verbo pairuzcoaren edo passivoaren presentean eta preterito imperfetoan<sup>5</sup>.  
 Escuara noblea da.  
 Escuara bertce hitzcuncetaric ethorquiric gabecoa da.  
 Hirurgarren galdea : cembat guisetaracoa dentz escuara, eta escualdunen mintçaira diferenta nondic heldu denz.  
 Escuara guztietan bat da.  
 Laurgarren galdea : certaco dentz escuara.  
 P. Axular, Saraco errotora, escuarazco autoretaric hautuena eta famatuena.  
 Saraco escuara Escual Herri guztian estimu eta ospe handitacoa da.  
 Escualdun escuararen arbutaçailleac, berac dira arbutaçarriac.  
 Escual Herrico gazteriari.  
 Iracurtçailleari.

Azkenengo bi atalek lotura handia dute, generoari dagokionean, bigarren saiakera-lanarekin. 1718ko argitalpena da *Lau-urdira gomendiozco carta edo guthuna*, Etxeberri berak moldiztegira eramanez ahal izan zuen bakarra. Vinsonek bi ale aipatzen zituen : bat Maurice Harrietena eta bestea Loiolako Santutegikoa. Urkixok bakarra aurkitu zuen, eta guk geuk ere *unicum* gisa aipatu izan dugu orain Baionako Udal Bibliotekan den alea, lehenago Harrietena, eta gero Lafitterena izandakoa. Gaur beste bi ale ere ezagutzen ditugu, biak Loiolako Santutegiko

4 - Honainoko atalak galduta daude, Zarauzko Eskuizkribua 23. orrialdean hasten baita, baina proiektua osotasunean aurkezteko balio digute izenburuek.

5 - Hemen amaitzen da Etxeberri eginiko *araldea*.

Bibliotekakoak<sup>6</sup>. Goitik behera aztertu ditugu arretaz hiru aleak, eta zalantzarik gabe baieztatu genezake edizio bereko ale berdina direla hiruak.

Gramatika-lana ere Zarauzko Eskuizkribuari esker ezagutzen dugu, eta Urkixok argitaratu zuen (zutabe bikoitzean idatziriko azalpenetako latinezkoa kenduta). Latin-gramatikaren lehen atala da *Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenak lathin ikhasteco* izenarekin eskaintzen zaiguna ; *rudimenta* edo *hatsapenak* dira, funtsean guk orain morfologia esaten dioguna ; izenburuan bertan dioen bezala "lehenbiciric icenen declinacinoez eta verboen conjugacinoez, azquenean icenari eta verboari dagotzen gauçac". Liburu honek harrera ona izanez gero, aurrerago latin-sintaxia "eta bertce gaineraco Grammaticari dagozcan gauçac" (Urquijo 1907 : 323) idazteko asmoa zuen Etxeberri, *Gomendiozco carta*-n zioenaren arabera.

Azkenik, berriro ere *Gomendiozco carta*-ri esker, badakigu Hiztegi Laukoitza (euskara-latina-frantsesa-gaztelania) moldatzen hasi zela Etxeberri Sarakoa 1712a baino lehen, gramatika idatzen hasi baino lehen, hain zuzen : "hasi nintcen escuaraz, latinez, francesez eta espainolez hitztegui baten moldatcen" (Urquijo 1907 : 323). Badakigu, orobat, Larramendik erabili ahal izan zuela egun pare batez, 1733an edo, bere hiztegi hirukoitzaren hitzaurrean aitortzen baitu zorra (Larramendi 1745 : xxxvi). Zorritzarrez ez da hiztegi horren alerik ezagutzen.

### Sbarbi-Urkixo Eskuizkribua XIX. mendekoa da

Luzaroan sinetsi nahi izan da José María Sbarbi Osuna liburuzaleak Urkixori saldu zion hiztegi laukoitza, Sbarbi-Urkixo Eskuizkribua izenarekin ezagutzen dena<sup>7</sup>, Sarako Etxeberri idatzia zela. Baina berriro ere arrazoi eman behar zaio Urkixori ; 1907n zalantzak zituen egiletasunaz, baina 1934an aurreratu zuen eskuizkribu hura XIX. mendekoa izan zitekeela, eta ez XVIII.ekoa, ordura arte pentsatzen zen moduan.

Gero ere, gehienbat beste hautazkorik ez zelako, Etxeberriren egiletasuna aipatu da behin eta berriro, aringarri gehiago edo gutxiagorekin. Joseba Lakarra iritsi zen urrunen, nik dakidala, Sbarbi-Urkixok Larramendiren hiztegi hirukoitzeko hitzak ez ezik, are Eranskinekoak ere hartu zituela frogatu zuenean (1992 : 296-299). Horrela erakutsi zuen Sbarbi-Urkixo ez zela idatzi 1745a baino lehen, eta beraz ezin zela Larramendik erabilitako Etxeberriren eskuizkribua izan.

Hemen azalduko dugunarekin beste 81 urte atzeratuko dugu *post quem data*, 1826ra arte, alegia, eta horrekin are urrunago geratuko da Etxeberriren susmagarritasuna. Honekin ez da baztertzeko, jakina, Sbarbi-Urkixo Etxeberriren hiztegi laukoitzaren zordun izatea, baina badirudi ezinbestekoa dela XIX. mendean bilatzea egilea edo egokitzailea.

1826ko data defendatzeko, ez dugu hemen eskainiko Sbarbi-Urkixoren iturrien azterketa sakonik, aski baita, Mitxelenak nahi zuen moduan, hiztegitagileen arteko zorren kontua argitzea : zalantzarik gabe Sbarbi-Urkixo Lécluseren zordun da.

6 - Fidel Altuna lankideak eman zigun ale onenaren berri. Oso-osorik dago, eta Loiolako Santutegiko Bibliotekako 1065, 2 - 31 signatura dauka. Beste dokumentu batzuekin batera dago, baina ez dirudi karpeta lau dokumentuen artean loturarik dagoenik. Ale horren bila joan, eta, ezustean, beste bat ere aurkitu dugu Loiolako Santutegiko Bibliotekako katalogoan. Ertzak moztuta dauzka, eta liburuki faktizioa osatzen du (1065, 2 - 43-2 signaturakoa), beste liburutxo eta separata batzuekin batera. Horietaiko bat behintzat, Duvoisinek 1866an argitaraturiko *Étude sur la déclinaison basque*, Jose Ignazio Arana (1838-1896) jesuitarena izana da, egileak hari oparitu baita, eskuz idatziriko eskaintzan ikusten denez. Ziurrenik Aranarenak izango ziren guztiak ere, Etxeberriren *Gomendiozco carta* barne.

7 - Orain Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean dagoen Bibliotekako Julio Urquijo Bildumako ms. 2940 eskuizkribua.

1826an eman zuen argitara Fleury Lécuse irakasleak *Manuel de la langue basque* liburua<sup>8</sup>. Liburuaren bigarren zatian, bi hiztegitxo datoz, euskara-frantsesa lehena eta frantsesa-euskara bigarrena. Sbarbi-Urkixoko hitzak modu sistematikoan *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko aipuekin erkatzean oharatu ginen kopuru susmagarria zela Lécuserenekin bat egiten zuena ; are susmagarriagoa, Lécuseren hiztegitxoan tamainu txikia ikusita. Zalantza gutxi zegoen : bien arteko erlazioa argitu behar zen, eta zein zeinen zordun zen erabaki.

Kronologia estandarrak pentsaraz zezakeen Lécuse Sbarbi-Urkixoren zordun egitea izan zitekeela lehenengo aukera, baina eskuizkribua eta euskara-frantsesa hiztegitxo arretaz aztertuz gero laster ikusten da, zalantzarik gabe, Sbarbi-Urkixoko hiztegi laukoitza idatzi duenak Lécuseren hitz-zerrendako hitzak erantsi dizkiola bereari ; lekukorik nabarmenena Sbarbi-Urkixoko 199. orrialdekoa da, baina eskuizkribu guztiko lerroarteetan daude tartekatuta Lécuserenetik harturiko hitzak, Lécuseren hurrenkera alfabetikoa eta berea uztartzeko ahaleginak eginda. Hots, Sbarbi-Urkixoko idatzi edo kopiatu duen eskuak (ez dago zalantzarik esku bera dela), hiztegia amaitu ondoren, Lécuseren gramatikako hiztegitxoak ezagutu ditu, eta euskara-frantsesa aldaera erabili du berean ez ziren hitzak hartu eta eskuartearen zuek lana osatzeko, lerroarteetan tartekatuaz hitz berriak, gehienetan (ez beti) latinezko eta gatzelaniatzeko ordaina gehituta.

Ikus dezagun orain adibide garbi bat, Sbarbi-Urkixoko *kha*- hasierari dagokiona, lerroarteko eransketak nola gauzatu diren ikusteko. Sbarbi-Urkixoko lerroartean tartekaturikoa letrakera etzanez emango dugu, eta hasierako testua letrakera zuzenez

Sbarbi-Urkixo	Lécuse
<i>khaba</i> : <i>cavus</i> , L., <i>hueco</i> , C., <i>creux</i> , Fr.	khaba : creux
<i>khabua</i> : <i>vigor</i> , L., <i>fuerza</i> , C., <i>vigueur</i> , <i>force d'ame</i> , Fr.	
<i>khacha-burdina</i> : <i>plegatorium</i> , L., <i>plegador</i> , C., <i>plissoir</i> , Fr.	
brigade	khadrila : quadrille,
<i>khalda</i> : <i>conglutinatio</i> , L., <i>soldadura</i> , C., <i>soudure</i> , Fr.	
<i>khaldan</i> : <i>incensus</i> , L., <i>incendido</i> , C., <i>pierre</i> , <i>fer enflammé</i> , Fr.	
<i>khantian</i> : <i>prope</i> , L., <i>cerca</i> , C., <i>près</i> , <i>auprès</i> , Fr.	khantian : près, auprès
<i>khalitcha</i> : <i>verruca</i> , L., <i>verruca</i> , C., <i>verruque</i> , Fr.	
<i>khaparra</i> : <i>dumus</i> , L., <i>zarza</i> , C., <i>ronce</i> , Fr.	khaparra : ronce
<i>khana</i> : <i>camini spiraculum</i> , L., <i>cheminea</i> , C., <i>tuiiau de cheminée</i> , Fr.	
<i>khaparstoya</i> : <i>vepretum</i> , L., <i>breña</i> , C., <i>buisson</i> , Fr.	khaparstoya : buisson
<i>kharatxa</i> : <i>amarus</i> , L., <i>amargo</i> , C., <i>amer</i> , Fr.	
<i>kharastasuna</i> : <i>amaritudo</i> <sup>9</sup>	kharastasuna : amertume
<i>kharastea</i> : <i>amargum reddere</i> , L., <i>amargar</i> , C., <i>rendre amer</i> , Fr.	kharastea : rendre amer
	kharatsa : amer
<i>kharba</i> : <i>manipulus</i> , L., <i>gabilla</i> , C., <i>gerbe</i> , Fr.	
<i>kharbotza</i> : <i>antiae</i> , L., <i>copete</i> , C., <i>toupet</i> , Fr.	
<i>kharcea</i> : <i>meminisci</i> , L., <i>acordarse</i> , C., <i>se souvenir</i> , Fr.	kharcea : se souvenir

8 - Lakarra 1987 eta Lakarra & Urgell 1988 erabili ditugu guk.

9 - Aurreko sarreraren ondoan (eta ez azpian) dago eskuizkribuan.

Sbarbi-Urkixo	Lécluse
<i>khardaitua</i> : fleau pour battre le bled, Fr.	
khardatcea : carminare, L., cardar, C., carder, Fr.	
khardinga : rancidez, L., rancidura, C., rancissure, Fr.	
khardoa : fomes, L., yesca, C., amadou, Fr.	
kharloa : castaneae cortex, L., pelo de castañas, C., hérisson de chataignes, Fr.	
kharmina : amaritudo, L., amargura, C., amertume, Fr.	
kharra : flamma, zelus, L., llama, C., flamme, zeles, Fr.	kharra : zèle, ardeur
<i>kharraca</i> : lima, L., lima, C., lime, Fr.	kharraca : lime
kharracatcea : scalpere, L., rascar, C., ràcler, Fr., limer, gratter	kharracatcea : limer,
	kharrafa : bouteille, carafe
	kharrakhazatia : ràcleur
<i>kharrascatcea</i> : stridere, L., rechinar, C., craquer, Fr.	kharrascatcea : craquer
kharratmitcha : cutis exulceratio, L., arañõ, C., egratignure, Fr.	
<i>kharremaitea</i> : cremare, L., abrazarse, C., s'embraser, Fr.	kharremaitea : s'embrâser
kharraxena : incensus, L., incendido, C., embrâsé, Fr.	
<i>kharrontatcea</i> : gelare, L., helar, C., géler, Fr.	
kharraxtasuna : amaritudo, L., amargura, C., amertume, Fr.	
	kharreyatcea : rapporter
	kharrontatcea : geler
<i>kharrua</i> : gelu, L., helada, C., gelée, glace, Fr.	kharrua : gelée, glace
kharrazca : stridor dentium, L., cruxido, C., grincement des dents, Fr.	
kharsatcea : torrere, L., tostar, C., griller, Fr.	
<i>kharsua</i> : ardens, L., ardiente, C., ardent, Fr.	kharsua : ardent
	khasaca : veste, casaque
khosatcea : dissipare, L., dissipar, C., dissiper, Fr.	khosatcea : dissiper

Egin ditzagun kontuak. Lagin honetan 23 hitz zituen Léclusek euskara-frantsesa hiztegia. Horietatik 6 (*kharra*, *khosatcea*, *kharsua*, *kharracatcea*, *kharrontatcea*, *kharrua*) baziren Sbarbi-Urkixoren testu nagusian, esanahi berarekin (*kharracatcea*-ren kasuan sinonimo bat hartu dio Lécluseri, eta bere ordainei erantsi : *ràcler* : *limer*). Sei horiei zarpigarren bat erants dakieke (*kharraxtasuna*) ; berean aldaera bat izan arren (*kharraxtasuna*), eratorriari dagokion izen soilaren ondoan (*kharraxta*) erantsi baitu Lécluserenetik harturikoa ; baina ez du ikusi hiru hizkuntzetako ordaina erantsi beharra, bazegoelako horretarako *kharraxtasuna* sarrera ; frantsesekoa kopiatu beharrean, ordea, latinezkoa soilik idatzi du.

Beste 5 sarrera (*khadrila*, *kharrafa*, *kharrakhazatia*, *kharreyatcea*, *khosaca*) ez ditu bere hiztegirako hartu nahi izan. Lehenengoaren kasuan, agian, bazeukalako *cadrilla* ; eta, berdin, *kharreyatcea*-ren kasuan, agidanek, bazeukalako *garrayatcea*. Gainerakoetan ez dakigu zergatik.

Lécluseren euskara-frantsesa hiztegitik, azkenik, 11 hitz hartu ditu oso-osorik, frantsesezko esanahiarekin ; erdiak, beraz. Ahal izan duenean, hurrenkera

alfabetikoan bakoitzari zegokion lekuan sartu ditu, baina lekurik ez zeukanean (erdiekin gertatu zaio hori), ez zaio axola izan beste tarte batean sartzea (ikus *khantian*, *khaparra*, *kharastea*, *kharremaitea*, *kharrontatcea*, *kharrua*). Lagin honetako hitzen kasuan, beti gehitu du latinezko eta gaztelaniazko ordaina, baina badira hutsunea laga eta ordainaren zain geratu direnak (ikus *bal dosa* : ..... *carreau*, *Fr.*, gero latinezkoa eta gaztelaniazkoa idazteko hutsunea utzita). Lécluseren oharrak ere kopiatzen ditu ; adibidez, s.v. *baguila*, Tolosako irakaslearenetik hartu du *bisc.* oharra.

Lagin honetan, hitz bakar bat dago Sbarbi-Urkixok lerroartean idatzi duena eta ez dena Lécluserengandik hartua : *khardaitua* : *fleau pour battre le bled*, *Fr.* Berriro ere *ca-* hasieretan bilatuez gero, han dago *cardaitua* : *fleau pour battre le bled*, *Fr.* Beraz, agian handik ekarri du. Hitz zuzena, jakina, *cardailua* edo *khardailua* litzateke<sup>10</sup>, eta zerbait gogorarazten digu -t- / -l- nahasketak (ikus baita *kharrakhazatia*, ziurrenik pro *kharrakhazalia*), hain zuzen Lakarrak eta Urgellek (1988 : 104) Lécluseren ezaugarrien artean aipatu zutela -t- / -l- nahasketa. Lécluseren hiztegi argitaragabe ezezagunean pentsatzera garamatza horrek (ikus Lakarra & Urgell 1988 : 109-114), baina badirudi ez dela irtenbidea hortik bilatu behar, ziur baieza baitaiteke *Escuararen gorputza / Lexicon Cantabricum* deitu behar zen hiztegi hirukoitzaren iragarkian argitaraturiko hitz zerrendak behintzat ez zituela erabili Sbarbi-Urkixoren egileak edo kopiagileak. B letra hartuta, adibidez, Lécluseren hiztegi-iragarkiko 100 hitzetatik 19 baino ez ditu Sbarbi-Urkixok, eta denak dira beste iturri batzuetatik ere azaltzeko modukoak.

Ikus dezagun orain Sbarbi-Urkixoko 199. orrialdekoa. Ustez amaitu da hiztegi laukoitza, *zu-* hasiera duten sarrerak amaitu direnean. Baina *ya-* eta *ye-* hasierakoak hasten dira orduan. Lehenengo hogeita bost sarrerak baino ez ditut erkatuko, eta euskarazko forma baino ez dut bilduko, ordainen jokabidea lerroartekoekin azaldu dugun bera baita :

Sbarbi-Urkixo	Lécluse	Sbarbi-Urkixo	Lécluse
yabea	yabea	yanedana	yanedana
yabetasuna	yabetasuna	yanharia	yanharia
yabetcea	yabetcea	yantordua	yantordua
yadan, yadanic	yadan, yadanic	yaquilea	yaquilea
	ya ez du emaiten	yaquina	yaquina
Yaincoa	Yaincoa	yaquinaraztea	yaquinaraztea
	yaincoquindarra	yaquitasuna	yaquintasuna
yaincoquindea	yaincoquindea	yaquinzuna	yaquinzuna
yaincotasuna	yaincotasuna	yaquitea	yaquitea
yaiquitcea	yaiquitcea	yaquiteco	yaquiteco
yalguitcea	yalguitcea	yararama	yaramana
yanbidea	yanbidea	yarcea	yarcea
yanean	yanean	yarcelona	yarcelona
		<i>yaroa</i>	

10 - Tximeletak dantzan hasten dira sabelean Orotariko Euskal Hiztegiaren ikusten dugunean XIX. mendearen bukaerako Maurice Harrieten (1814-1904) hiztegiaren aurkitu dutela *khardailu* forma, eta *fléau à battre le fromment* definizioa duela, edo XIX. mendearen bukaerako hiztegi horren bidez baino ez zela ezagutzen *aalgaizuna* forma, edo *achita*, 'arina' esanahiarekin, eta horiek ere lerroartean gehituta daudela Sbarbi-Urkixori saldu zion eskuizkribuan.

Ondorioa ezin argiagoa da. Hogeita bost sarreretatik hogeita lau Lécluseren hiztegitik kopiatuak dira. Bakarra dago Léclusek bildu ez duena (*yaroa*), eta bera lerroartean dago, beranduago erantsita (beraz 1826a baino geroago erantsita). Soilik bi sarrera utzi ditu hartu gabe (*ya ez du emaiten, yaincoquindarra*), ez dakigu zergatik. Eta hitzak eta esanahiak hartzean egin dituen aldaketak hutsalak dira gehienetan : *ya- > yia-, yaquintasuna > yaquitasuna*. Bakar bat izan liteke interesgarria (*yaramana > yiarama*), kopiatzailearen akatsa salatzen baitu.

Hortaz, uste dugu frogatuta geratu dela Sbarbi-Urkixo eskuizkribuan 1826an argitaraturiko lan bateko hitzak modu sistematikoan sartu direnez, urte hori dela eskuizkribuaren *post quem* data. Ez dugu frogatu, jakina, eskuizkribuak ez duela erlaziorik Joanes Etxeberri Sarakoak moldaturiko hiztegi laukoitzarekin, baina, zalantzarik gabe, ezin izan zen Sarako mirikuaren eskua izan eskuizkribu hori idatzi zuena. Bi arazo berri ditugu orain : lehena, berriro ere hutsetik hastea Etxeberriren hiztegi laukoitzaren bila, eta bigarrena, XIX. mendean bilatzea Sbarbi-Urkixoren neurriko lana egin zezakeen euskalaria. Edonola ere, oraindik ez dira erabat argitu Sbarbi-Urkixoren zor guztiak, eta uste dugu XIX. mendera fokatzean hartzekodun gehiago agertuko direla, orain arte atzenduta izan direnak.

### **Eztut jeusic neure baitharic ekharri, ez eta ere autoretan causitcen ezten gauçaric isquiribatu**

Aurkeztu dugu Joanes Etxeberri Sarakoa, sendagilea eta letra-gizona. Azaldu dugu gaingiroki bere bizitzaz eta bere lanez dakiguna. Eta nahita errepikatu dugu, behin eta berriz, lanbidearen eta ezagun egin duen jardunaren arteko bikoiztasuna, uste baitugu funtsezkoa dela bere lana ulertzeko eta azterbideak lorratzeko. Etxeberri Sarakoa sendagilea da, eta gizakiak sendatzea da bere jardun nagusia. Ikasketagarria izan da jakintza-gune eta biblioteka handietatik hurbil bizi izan den sasoi bakarra : lehenengo ikasketetan ez dakigu non, baina badakigu jesuitekin izan zela ; gero, medikuntza-ikasketetan, Okzitaniako Tolosan. Geroztik bizi izan den herrietan, mugatua izan bide zuen jakintza berrietarako bidea.

Zer irakurri zuen Sarako mirikuak ? Galdera horri erantzuteko biderik zuzenena berak bere liburuttoan aipatzen dituen autoreak aztertzea da. Hori baino gehiago ere egin daiteke (aipatu gabeak bilatu, inguruko jakintza-guneak aztertu...), baina hemen dugun leku mugatuan lehenengo bide zuzen horri baino ez diogu ekingo ; gainera ez dugu azterketa osoa hemen eskainiko, aipu, obra eta autore hautatuen iruzkina baino, aztarnarik deigarrienak agerian jartzeko.

Azterbide hori, berez, interesgarria izan daiteke ; baina are interesgarriagoa bihurtzen da Etxeberrik berak, *Iracurtçailleari* atalean, idazten duenaren argitan (Urquijo 1907 : 111) :

Horra, beraz, iracurtçaillea, ikhusi tutçu orai cer diren escuara, escualdunac eta Escual-Herria. Ustez eztut jeusic neure baitharic ekharri, ez eta ere autoretan causitcen ezten gauçaric isquiribatu : "nihil dictum, quod non sit dictum prius". Nic eguin dudan gauça da, Lirinensec dioenaren eredura, "eadem tamen, quae didicisti, ita doce, ut dicas nove, non dicas nova" (Lirinens. *Opusculo advers. haereses*), lehen autorec erran tuzten gaucei plegadura berri baten emaita, edo hor-hemen vanaturic ceudecinac elkhargana biltzea eta escuarara gambiatcea, bide hunetaz escualdunec bertce hitzcuntcetaco istorioetaco itçalaren azpian dauntçan gauçac jaquin detçaten amoreacgatic.

Ez dugu uste soilik baliabide erretoriko moduan (apaltasuna agertzearen) ulertu behar direnik hitz horiek. Aitzitik uste dugu, neurri handi batean behintzat, benebenetan ari dela.

Jakina, Aro Berriko autoreak dira, gehienbat, zentzua ematen diotenak "lehen autorec erran tuzten gaucei plegadura berri baten emaitza, edo hor-hemen vanaturic ceudecinac elkhargana biltzea eta escuarara gambiatcea" esaldiari. Gure kontuen arabera, multzo horretako 25 autoretatik hamabi XVI. mendekoak dira (aipaturiko lanaren lehen edizioari begiratu gero),<sup>11</sup> bederatzi XVII. mendeko lehenengo erdikoak dira, eta soilik lau XVIII. mendearen bigarren aldekoak, eta, espero zitekeen bezala, garau bat ere ez XVIII. mendekoa. XVIII. mendean bizi den gizonak, beraz, XVI. eta XVII. mendeetako jakintzari ematen dio plegadura berria.

Horien artean bereziki aipagarriak iruditzen zaizkit bi jesuita, beren lanek Jesusen Konpainiaren eskoletan izan duten hedakuntzagatik : Bartolomé Bravo eta Pedro de Salas. Biak aipatzen ditu Etxeberriek, César Oudin eta Bernardo José Aldrete gure artean ezagunagoekin batera, ç grafiaren erabileraz diharduenean (Urquijo 1907 : 146)<sup>12</sup>. Bartolomé Bravoren (1550-1607) eskuliburuak eta hiztegiak erabili ziren hain zuzen, XVII. mendetik XIX.era arte ehundaka argitaraldi kaleratuz, jesuiten eskola askotan latina ikasteko, Despauterioren gramatikaren bertsio egokitu gisa. Pedro Salasen (1584-1664) *Thesaurus Hispanolatinus* ere (Bravoren hiztegien zordun eta oinordekoa) berrogeitamar bider baino gehiago berrargitaratu zen hiru mende horietan. Azaleko antzekotasunen arabera, badirudi emankorra izan litekeela horien lanak Etxeberrirenarekin erkatzea.

### Aipuaren aipamena, eta aipatu gabea

Aipuen artean denetakoak dira, Aro Berriko idazleez gain : Bibliako aipamenak, Patrologiako idazleen aipamenak, idazle klasikoek aipamenak...

Bibliatik harturiko aipamenetan ziur ari da ; are gehiago, badirudi asko eta asko buruz egindako aipamenak direla, eta bigarren aldi batean goitik behera berrikusi dituela guztiak, jatorrizko testua eskuan hartuta. Horregatik dute askok eta askok gainetik edo lerroartean egindako zuzenketaren bat. Jatorriaren aipamen zehatza ere lerroartean dago askotan, hain zuzen bigarren idaztaldi batean erantsia den seinale.

Patrologiako idazleen aipuak ere zehatzak izan ohi dira, eta, gehienetan, ez da zaila izaten erreferentzia zuzena aurkitzea. Normalean autorearen izena ematen du, eta lanaren izenburu laburtua. Jakina, nahasmenerako bideekin ere adi izan behar da. Esaterako, Gienako Prosperoren *de vita contemplati*. liburua aipatzen du (Urquijo 1907 : 6) hortik aipua hartu duelakoan, baina Akitaniako Prospero sailduak ez zuen izen horretako libururik idatzi, luzaroan (batik bat Erdi Aroan) horrela zela uste bazen ere ; izan ere, Juliano Pomerio da *De vita contemplativa* liburuaren egilea, eta haren liburukoa da aipua. Nondik hartu du Etxeberriek ? Kasurik onenean, Elizako Gurasoen lanen bilduma bat erabiliko zuela pentsatu

11 - Horrek ez du esan nahi, jakina, Etxeberriek lehenengo edizioa erabili duenik. Badakigu, adibidez, Oihenarten *Notitia*-ren bigarren edizioa erabili zuela, 1656koa, eta ez 1638koa. Adierazgarria da baita Joannes Aurelius Augurellusen (1456-1524) kasua ere. Aipaturiko lana (*Chrysopæia carmine conscripta*) 1515ekoa da, baina Etxeberriek zehaztu du kimikako eta alkimiako lanen bilduma bat erabili duela, *Theatrum chemicum*, 1613an hasi eta 1651ra bitartean sei liburuki handitan argitaratua.

12 - Urkixoren edizioan desitxuratuta geratu dira izenak (*Oudin* eskuizkribuan > *Ondin* Urkixorenean, eta *salas* izen arrunt gisa aurkeztuta), baina ez dago zalantzarik egile horiez ari dela. Dena den, ezin da aipatu gabe utzi testu nagusiari albo batean beranduago erantsitako oharra dela ç-ri buruzko hau.

behar dugu, eta, zorionez, behin (Urquijo 1907 : 86) aipatzen du bildumaren izena izan daitekeen laburdura : *Biblioth. Veter. Patr.*, hots *Biblioteca Veterum Patrum*. Oraingo ezin dugu ziurtatu zein edizioz ari den, baina edozelan ere Mignereren lan erraldoiaren aitzindarietako bat da ; horrela deitzen da, adibidez, 1624an Fronton du Duc-ec argitaraturiko edizioa. Bilduma horrek 12 liburuki ditu. Herri txiki bateko sendagileak etxean izan zezakeela pentsatu behar al dugu ?

Kasu batzuetan behintzat, badakigu zein izan den aipua ugaritzeko bidea : liburu batetik beste baten aipua hartzea. Horrela da, esaterako, ustez artxiboatako bilaketa-lanaren ondorioak aurkezten dituen aldi bakanetako batean. Osorik bilduko dut hemen aipua, polita baita Etxeberri egin duena ikustea (Urquijo 1907 : 78) :

Arasioc, celarican Laburdico ippizpicu, bederatci ehun eta laurhogoygarreneco urthearen ingurunean, eguin çuen declaracino bat, ceinetan declaratcen baitçuen noraraino hedatcen cen haren Ippizpicutasuneco eremua, çucena eta autoritatea. Eta da guisa hunetan :

"In nomine Domini Nostri Jesu Christi. Amen. Ego, Arsius, indignus et humilis Laburdensis episcopus, volo tradere notitiae successoribus et posteris, ea qua nostro Episcopatu, scilicet Sanctae Mariae Laburdensi, subiacent loca, etc.." (e Chartario Capituli Bajonensis, circa annum Christi 980).

Jesu Christo Gure Jaunaren icenean. Halabiz. Nic, Arsio, Laburdico ippizpicu merecigabeac eta humilac, nahi dut jaquin deçaten gure ondocoec, cein herri diren Laburdico Andre Dena Mariaco Ippizpicutasunaren azpicoac, etc. (Hau da Bajonaco Capituluaren archivotic edo paperteguitic, bederatci ehun eta laurhogoygarren urthearen inguruneco).

Oihenarten aurka ari da Etxeberri atal osoan, Lau-urdi / Lapurdi / Laburdiren etimologia argitzen. Oihenartek, *Notitia*-ko III. liburuko IV. kapituluaren kontuari garrantzi handirik eman gabe, esan du *Lapur* hitzarekin duela zerikusia *Lapurdi* izenak, baina benetan erakutsi nahi duena da zein diren *Vascitania* izeneko lurraldearen mugak. Testuinguru horretan erabili du Arasioren dokumentua, oso osorik transkribatuta (Oihenart 1656 : 404-405). Sarako sendagileak aipua bere helburuetarako hartu du, eta hain zuzen ustez Oihenarten argudioaren aurka balio duen lekukotasun zahar gisa erabili du, orrialde oso bateko dokumentutik lehenengo lau lerroak hartuta.

Are Juan de Marianaren kasuan ere, liburuttoaren orrialde osoak haren aipuaren aurka idatziak izan arren, esango nuke Etxeberri ez duela haren libururik irakurri. Izan ere Marianaren lau lerro dira behin eta berriro aipatzen dituenak, eta lerro horiek Oihenarten liburutik hartuak dira (Oihenart 1656 : 37-38).

Berdin, ziurrenik, Scaligeroren kasuan. Bi lekutan erabili du aipu bera (Urquijo 1907 : 13 eta 49), *Tractatus de linguis Europaeorum* izenarekin aipatuta, hain justu Oihenartek (Oihenart 1656 : 36) darabilen izenarekin, izen ohikoena *Diatriba de Europaeorum linguis* izan arren. Beste batzuetan hain zehatz adierazten dituen liburuki, orrialde eta abarrez ere ez da gogoratzen, Oihenartek ere ez baitakar halakorik.

Susmo hutsalekin ari garela pentsa lezake baten batek, baina kontua da zalantzarik gabe dakigula jokabide hori ohikoa zela Etxeberriren lanean. Beste kasu bat ekarriko dugu hona, oraingoan autore klasiko batena. Tazitoren aipu lauso bat biltzen du Etxeberri euskarazko zutabearen (Urquijo 1907 : 28) :

Lekhuko da Tacito, erromarrec anglesen, alemanen eta hequien capitain generalaren contra ičan çuten guerla hartan, vitoria etsajetarat erortcera cihoana, escualdun tropelac estrosadaren min-minean ethorriric, erromarrac garaitiar eraguin cituztela.

Baina latinezko zutabeaz zehatzagoa da jatorriaren aipamena, liburuaz eta kapituluaz zehazten baititu (Zarauzko Eskuizkribua, fol. 73) :

Testis enim est Tacitus (lib. 4 *Histor.*, cap. 7) in eo bello quod Vitelliani contra Britanos et Germanos eorumque ducem Civilem sustinuerunt, inclinantes iam in hostes victoriam, Vasconum cohortes fervente proelio accitas, Romanis asseruisse.

Azaroa da Tazitoren *Historiae* liburuaren IV, 7 atalean ez dela halakorik aipatzen (bai ordea IV, 33 atalean). Etxeberriren errakuntza bat ? Ez, Oihenartengandik kopiaturiko akatsa. Gainera oraingoan beste jokamolde bat ere agerian geratu da : ez du kopiaturik soilik aipua, Oihenarten hitzak eurak baino, oso-osoan. Goian bildu ditugun hiru lerroak hitzez hitz Oihenarten I, VIII ataletik (Oihenart 1656 : 28) hartuak dira, eta gero euskarara "ganbiatuak". Zati honetan, beraz, latinezkoa da jatorrizko testua, eta euskarazkoa haren itzulpena.

Zati luzeagoekin ere aurkitu dugu Etxeberri horrela jotzen. Orreagako borrokaren kontakizuna (Zarauzko Eskuizkribua, fol. 73 hh. ; euskaraz Urquijo 1907 : 29 hh), adibidez, ia osorik hartu du latinez Oihenarten *Notitia*-ko I, IX kapitulutik, eta gero handik euskarara itzuli. Pasartearen hasiera baino ez dugu hemen bilduko, aski baita Etxeberriren jokabidea ikusteko :

#### Oihenart

Hic interim nolim omitti, ea quae inter ipsos et Caroli magni exercitum, **citra Pyrenaeum** contigere; insignem scilicet illam et **toto orbe** decantatam stragem, quam is exercitus ad Roncavallim, anno Christi 778 passus est. Vascones libertatem quam illibatam sub Romanis **conservarant** contra Suevos, Gothos et Sarracenos intrepide defenderant, magna ex parte sub Carolo amisere. Hic enim dum Hispaniam ab Ibnabala Regulo Sarraceno sollicitatus cum valido exercitu contenderet, per Vasconum et Navarrorum terras iter faciens, utrumque populum suo subesse Imperio et ditioni **coegit**, et tributo imposito vectigalem **fecit**, Pompelonem etiam oppidum caput gentis, dirutis moenibus, per speciem defectionis praecavendae, **in** vici formam redegit, testibus Eginhardo et aliis illius seculi historicis, qui res a Carolo gestas literis mandarunt ...

#### Etxeberri Sarakoa

Judico iam interesse ea quae inter Vascones et Caroli Magni exercitum, **in Pyreneis** contigere; insignem scilicet illam decantatam stragem, quam is exercitus ad Roncavallim, anno Christi **septingentesimo septuagesimo octavo** passus est. Vascones libertatem quam illibatam sub Romanis **conservaverunt** contra Suevos, Gothos et Sarracenos intrepide defenderant, magna ex parte sub Carolo **Magno** amisere. Hic enim dum Hispaniam ab Ibnabala Regulo Sarraceno sollicitatus cum valido exercitu contenderet, per Vasconum et Navarrorum terras iter faciens, utrumque populum suo subesse Imperio et ditioni **cogere**, et tributo imposito vectigalem **facere nitens**, Pompelonem etiam oppidum caput gentis, dirutis moenibus, per speciem defectionis praecavendae, **ad** vici formam redegit, testibus Eginhardo et aliis illius seculi historicis, qui res a Carolo gestas literas mandarunt ...

Letrakera beltzez nabarmendu ditugu aldaketak, horien hutsaltasuna erakusteko hain zuzen. Gainera, testua ulergarriago egiteko guk hemen puntuazioa aldatu dugun arren, Oihenartenetik zintzo-zintzo kopiatuta daude komak eta zeinu gehienak ere (adibidez *iniuriā*). Etxeberriren lehenengo bertsioan, halere, Oihenarten izena ez zen inondik agertzen atal honen egiletasuna aitortzeko ; gero, bigarren idatzadi batean, lerroartean erantsi du nolabaiteko aitormena (Urquijo 1907 : 29) : "Oihenartoc dioen beçala".

### ***Florilegium, loci communes, polyanthea, entziklopedia, hiztegi... eta abar***

Ikusi dugu akats bat kopiatze-lanaren salatzaille izan daitekeela eta Etxeberriren jokabidea agerian jartzeko baliagarri izan daitekeela. Beste akats batek beste jokamolde baten aztarnetara zuzenduko gaitu. Ugari dira idazle klasikoen aipu zuzenak : Zizeron, Horazio, Ovidio, Martzial, Seneka, Plinio Gaztea, Kintiliano, Suetonio, Apuleio... baita Virgilio ere, behin. Baina bada Virgilioren izenean emandako bat latindarraren lanetan aurkitzen ez dena (Urquijo 1907 : 21) :

Halacoac bertceren gaucen laudatcen hari direla. Beharbada, ustez ecen Virgilioren erranaren eredura :

Qui viret in foliis venit a radicibus humor  
et patris in natos abeunt cum semine mores.

Norena da aipua ? XV-XVI. mendeko idazle batena. Nondik dator nahastea ? Idazlearen izenetik. Sarako Etxeberrik ez zeukan aurrean Virgilioren liburua, ez eta bi bertsolerro horien egloga-liburua ere, testuingurutik kanpo bilduriko bi bertsolerroak baino, besteren batek aipatuta (gorago azaldu dugun jokabideaz ariko bagina), edo, ziurrago (beste jokamolde baten arabera), aipu-bildumaren batean. Bi bertsolerroen azpian *Mantuanus* bide zegoen idatzita, aipuaren autore gisa ; eta Sarako mirikuak beste mantuanorik ezagutu ez, Mantuan jaiotako Virgilio baino. Ez zuen ezagutzen, jakina, Giovanni Battista Spagnoli karmeldarra, Mantuan jaio eta hil zelako (1447-1516) Baptista Mantuanus izenarekin ere ezagutzen zena.

Ez dakigu Etxeberrik aurrean zuen aipu-bilduma zein motatakoa zen, baina halakoren bat erabiltzean ere ez zen bere garaiko beste idazle, hizlari eta artisten ohituretatik asko urruntzen. Izan ere ezagunak dira, XVI-XVIII. mendeetako idazleek, informazioa eta apaingarriak biltzeko eta bilatzeko, betiere erudizio-agertzearen zerbitzutan, erabili ohi zituzten baliabideak. Lehena, norberaren kartapazio edo bildumak (*codex excerptorius*), irakurritakoan aurkituriko pasarte interesgarriak kopiatzeko. Horren adibide dira, nolabait, Zarauzko Eskuizkribuko 446-448 orrialdeak (Urquijo 1907 : 293-295). Bigarrena, inprenta bidez hedaturiko *florilegium, loci communes, polyanthea*, entziklopedia, hiztegi... eta abarrak. Etxeberrik berak entziklopediak eta hiztegiak baino ez ditu aipatzen : Louis Moréiren *Le grand dictionnaire historique, ou mélange curieux de l'histoire sacrée et profane* (lehenengo edizioa 1671koa da), Jvigne Broissinièreren *Dictionnaire théologique, historique, poétique, cosmographique, et chronologique* (lehenengo edizioa 1644koa da), eta zehaztasun gehiagorik gabeko *Dictionnaire Royale* bat ; edo, bestelako izenarekin ibili arren, funtsean oraingo entziklopedien aitzindari izan daitekeen erreferentzia-lana : *Theatrum vitae humanae*, oraindik ez dakigu zein bertsiotan (Zwinger-ena, Beyerlinck-ena, Boissard-ena...). Baina aipatzeko moduek eta aipaturiko akatsek pentsarazten dute erreferentzia-lan gehiago ere erabili bide zituela.

Azken bi adibide aurkeztuko ditugu (ustez biak jatorri berekoak), erakusteko edozelan ere ez dela beti erraza izaten aipuaren jatorria aurkitzea, Etxeberri itxura batean datu guztiak eman arren. Hona lehenengo aipua (Urquijo 1907 : 46) :

Hunen arroçoina Geronimo Sainduac emaiten du :

“Difficile est, et arduum, ut quae in alia lingua bene dicta sunt, eumdem decorem in translatione conservent ; perdunt gratiam, pleraque si quasi invita et recusantia violentius transferantur.” (Tom. 2, *Epistol.* 101, *De optimo genere interpretandi*).

Gaitz da hitzcuntça batean ederqui erraniccaco gauec, bertce batera gambiatcen direnean, iduc eta conserva deçaten edertasun bera ; galtcen dute bere garacia, ceren bortchaz beçala baithoaci.

Patrologian Hieronymus Stridolensis autorearen gutunetan (*Epistolae*) gaurko antolaketan (eta ez da atzo goizekoa) 101.a bilatuez gero, ikusiko dugu ez daukala inolako zerikusirik gai honekin. Izan ere ez da Jeronimoren gutuna ere, Augustin Sainduak Jeronimori idatzia baino, eta ez da ari itzulpenaz.

57. gutuna da, hain zuzen, itzulpenaz diharduena : *de optimo genere interpretandi*. Gutun horretan Pamakio adiskideari idazten dio, Rufinoren salaketei erantzunez, bildumako 51. gutuna txarto itzuli zuela leporatu baitzion hark. Jeronimoren tesia ezaguna da : itzulpen-lanean ez da hitzez hitz aldatu behar hizkuntza batetik bestera, esanahiari eta zentzuari osoan begiratuta baino. Horretarako, autore klasikoak erabiltzen ditu autoritate gisa.

Azaroa da Etxeberriren aipuetan ez dugula Jeronimoren testua osorik aurkitzen. Aipuaren jatorria, zati bati dagokionean, Pamakiori zuzenduriko gutunean dago (*Epistola 57, 5*), zalantzarik gabe, nahiz eta aldiberean Jeronimok berak beste lan batean idatzitakoaren aipua izan. Hona hemen testu biak alderatuta (letrakera beltzean eman ditugu bat datozen zatiak) :

#### Jeronimo, *Ep. 57, 5*

tali inter caetera usus sum Praefatione :  
«Difficile est alienas lineas insequentem, non alicubi excidere : et arduum, ut quae in alia lingua bene dicta sunt, eumdem decorem in translatione conservent...».

#### Etxeberri Sarakoaren aipua

Difficile est, et arduum, ut quae in alia lingua bene dicta sunt, eumdem decorem in translatione conservent; perdunt gratiam, pleraque si quasi invita et recusantia violentius transferantur

Bigarren zatia (*perdunt gratiam...*) ez dago Jeronimorenean. Baina ez da Etxeberriren asmakizuna. Ikus dezagun Aulo Geliok *Noctes Atticae* liburuan (9, 9, 1-3) grekozko testuak latinera itzultzeaz dioena :

Quando ex poematis Graecis vertendae imitandaeque sunt insignes sententiae, non semper aiunt enitendum, ut omnia omnino verba in eum, in quem dicta sunt, modum vertamus. Perdunt enim gratiam pleraque, si quasi invita et recusantia violentius transferantur. Scite ergo et considerate Vergilius, cum aut Homeri aut Hesiodi aut Apollonii aut Parthenii aut Callimachi aut Theocriti aut quorundam aliorum locos effingeret, partem reliquit, alia expressit.

Hor dago, hitzez hitz, Etxeberrirenaren bigarren zatia. Ideia hori Jeronimorena ere bada (ikus, adibidez, orobat Ep. 57, 5 atalean : “linguae gratiam in interpretatione mutari”), baina hitzak Aulo Geliorenak dira.

Etxeberri emandako bigarren aipuaren jatorria azaltzea are zailagoa da. Hona hemen aipua bera (fol. 134-135) :

Non, arroçoin bera dela causa, erranen baitu Geronimo Sainduac ere :

"Versionem omnem in qua originalis textus exprimitur sensus, esse optimam, esto aliis verbis exprimat. Nec verbo reddere curabit fidus interpres (ait ille) sed sententias et sensus transferre studebit." (D. Hyeronym., Tom. 2, *De optimo genere interpretandi*, *Epistol.* 101, cap. 2).

Eztira bethi escritura sainduco eta dotoren erranac hitzez hitz hitzcuntça batetic bertcera itçuli behar ; hitz diferentequin badere, sentzu onaren causitcera entsejatu behar da, eta hurache date interpretacino edo gambiadura ona.

Etxeberri ematen dituen jatorriaren datuak beste aipuaren berdin-berdinak izan arren (Jeronimoren 101. gutuna, *De optimo genere interpretandi*) Jeronimorenean hitzez hitz aurkitu dugun zati bakarra berez Horazioenetik hartua da, Jeronimok berak ondo aitortzen duen moduan ("ait ille") : "nec verbo verbum curabis reddere fidus interpres" (*Ars poetica*, 133-134). Gainerakoa ez dugu aurkitu, hitzez hitz, beste inon. Bai ordea hitz horien atzean dagoen ideia, Jeronimoren gutun honetako tesi nagusia baita, izan ere (Ep. 57, 6) :

Antonium, te petente, transposui, **ut nihil desit ex sensu**, cum aliquid desit **ex verbis**. Alii syllabas aucupentur et litteras, **tu quaere sententias**.

Dena batera aurkizen dugu, beraz, Jeronimoren kapelapean : Jeronimoren hitzak ("difficile est..."), Jeronimoren ideiak ("sententias et sensus transferre"), Jeronimok aipaturiko klasikoak (Horazio), eta inondik ere Jeronimok aipatu gabeak (Aulo Gelio). Oraingoz ez dakigu zein den hibridazioaren egilea, Etxeberri bera, ala Etxeberriren iturri izan daitekeen bildumaren bat, baina badirudi ez litzatekeela alferreko lana izango bigarrenaren bila aritzea. •

## Bibliografia

- Bilbao, G., 1991, "Larramendiren garaikide bat : zenbait xehetasun Joanes Etxeberri Sarakoaz", *ASJU* XXV-3, 751-768.
- Bilbao, G., 1997, "Joanes Etxeberri Sarakoa Okzitaniako Tolosan ikasle", *Uztaro* 23, 25-30.
- Etxeberri, J., 1712 = Urquijo, 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por -----*, Paris. Gero facsimilean : idem, *LGEV* 1967. Ikus beste reprint bat : *Lan osoa*, Biarritz 1998.
- Lakarra, J. A., 1987, "Lécluse-ren euskal gramatika. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak I", *ASJU* XXI-3, 813-916.
- Lakarra, J. A., 1992, "Larramendiren aurreko hiztegegintzaren historiaz : aztergai eta gogoeta", in *Manel Larramendi. Hirugarren mendeurrena. 1690-1990*, 279-312.
- Lakarra, J. A. & Urgell, B., 1988, "Lécluse-ren hiztegia. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak II", *ASJU* XXII-1, 99-211.
- Larramendi, M., 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia.
- Oihenart, A., 1656, *Notitia utriusque Vasconiae*, Paris (= *idem*, Eusko Legebiltzarra, Vitoria-Gasteiz, 1992).
- Urquijo, J., 1907, cf. Etxeberri 1712.
- Urquijo, J., 1913, "Una deuda de Joannes d'Etcheberri", *RIEV* VII, 57-59.
- Urquijo, J., 1934, "Vascófilos ingleses (continuación)", *RIEV* XXV, 605 hh.